



Bilbao Orkestra
Sinfonikoa

**PUBLIZITATE ZERBITZUAK KONTRATATZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN ETA ZEHAZTASUN
TEKNIKOEN ORRIA**

Aurkibidea

01. <u>Kontratuaren xedea</u>	1
02. <u>Betearazpen epea</u>	1
03. <u>Lizitazioaren aurrekontua</u>	2
04. <u>Ordaintzeko era</u>	4
05. <u>Prezioen berrikuspena</u>	4
06. <u>Bermeak</u>	5
07. <u>Kontratua betearaztea</u>	5
08. <u>Esleipendunaren oinarriko betebeharrak</u>	5
09. <u>Bermearen onarpena eta epea</u>	10
10. <u>Betebehar-haustea eta zigorrak</u>	11
11. <u>Kontratua suntsiarazteko arrazoiak</u>	13
12. <u>Esleipen prozedura</u>	13
13. <u>Esleitzeko irizpideak</u>	13
14. <u>Formulen bidez zenbatu daitezkeen irizpideen balorazioa</u>	14
15. <u>Formulen bidez zenbatu ezin diren irizpideen balorazioa</u>	15
16. <u>Kontratatzeke eskatutako baldintzak</u>	16
17. <u>Proposamenen aurkezpena</u>	18
18. <u>Agiriak hautatzea eta eskaintzak zabaltzea</u>	21
19. <u>Esleipena</u>	22
20. <u>Formalizazioa</u>	24
21. <u>Kontratua aldatzea</u>	24
22. <u>Izaera eta araubide juridikoa</u>	25
23. <u>Kontratazio-arloko errekurtso berezia</u>	26



Bilbao Orkestra
Sinfonikoa

24. <u>Jurisdikzio eskuduna</u>	27
1. eranskina. Espezifikazio teknikoak	28
2. eranskina. Eskaintza ekonomikoaren eredia	38
3. eranskina. KAEB erabiltzeko jarraibideak	40



01. KONTRATUAREN XEDEA.

Plegu honen helburua da Juan Crisóstomo Arriaga-Bilbao Orkestra Sinfonikoa Fundazioarentzako (aurrerantzean, BOS) **publizitate zerbitzua** kontratatzea, kontratu izaera izango duen txostenean datozen zehaztasun teknikoekin bat etorritz.

Kontratatu nahi den zerbitzuan honakoak sartuko dira:

- 1) Sormena, 1. eranskinean zehaztutako jarduerak barne.
- 2) 1. eranskinean aipatzen den publizitate-material guztia sortzea.
- 3) Hedabideen kudeaketa, 1. eranskinean jasotako espezifikazio teknikoekin bat etorritz.

Zerbitzu horien helburua da BOSeko publiko xedearengan eragina izatea kontsumo kulturala erabakitzean, BOSeko kontzertu/jarduerak ezagutzeko eta horietara joateko interesa areagotuz.

Aurrekoaz gain, beste helburu bat BOSi ospea ematea da, erabiliko diren publizitateko formatu ezberdinekin.

02. BETEARAZPEN EPEA.

Kontratuaren iraupena **lau (4) urtekoa** izango da, sinatzen denetik zenbatzen hasita.

Luzapena: Kontratua amaitu aurretik, aldeek berariaz eskatuta eta ados egonez gero luzatu ahal izango da. Edonola ere, luzapenak edo luzapenek, bakarka edo batera, ezin izango dute 24 hilabete gainditu.

Edozein kausa dela medio, kontratua bide arrunt edo ez arruntetik hautsiko balitz, zerbitzuak jarraituko duela bermatzeko helburuarekin, BOSeko kontratazio batzordeak kontratuaren derrigorrezko luzapena adostu ahal izango du. Luzapenak kontratu berria esleitu arte iraungo du, baina inoiz ez sei hilabete baino gehiago.



03. LIZITAZIOAREN AURREKONTUA.

A) KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA.

Publiziterako eta aplika daitekeen esleipen prozedurarako, hasierako iraupenean eta luzapenean kontratuaren zenbatetsitako balioa milioi bat szazpiehun eta berrogeita hiru mila zazpiehun eta hemezortzi euro eta hirurogeita bi zentimokoa izango da. **(1.743.718,62 €) (BEZ gabe)**

B) URTEKO GASTURAKO GEHIENEZKO AURREKONTU ZENBATETSIA.

Kontratuaren urteko gasturako zenbatetsitako gehienezko urteko aurrekontua berrehun eta laurogeita hamar mila seiehun eta hemeretzi euroko eta hirurogeita hamazazpi zentimokoa da. **(290.619,77 €) (BEZ gabe).**

Aurrekontu haori modu honetan dago banakatuta:

- Sormena: 35.167,44 € urteko.
- Publizitate-materiala egitea: 64.718,76 € urteko.
- Publizitate-hedabideen kudeaketa: 190.733,57 € urteko.

Zerbitzuaren gastu efektiboa BOSen benetako beharrianen menpe egongo da, eta, beraz, ez da derrigorrezkoa izango unitateen zenbateko jakin bat egitea edo material eta hedabideetarako adierazitako gastuaren aurrekontu osoa gastatzea.

C) ESKAINTZEN LIZITAZIO MOTA.

Lizitzaileen eskaintza baxuenen lizitazio-mota honakoa izango da:

- a) SORMENERAKO: 35.167,44 €/URTE. (BEZ gabe).

Zenbateko hori eskaintzen gehienezko zenbatekoa da, eta zenbateko hori gainditzen duten eskaintzak automatikoki baztertuko dira.

- b) PUBLIZITATE-MATERIALAK EGITEKO.

Lizitzaileek adierazitako artikuluetarako prezioak eskaini beharko dituzte.

BOSEk gehienezko prezio unitarioak ezartzen ditu, eta horiek kopuru handiagoko eskaintzak baztertzea zehaztuko dute.

Eskaintza ekonomikoak eurotan egingo dira, eta prezio unitarioak eurotan adieraziko dira, lau dezimal baino gehiago ez dituen zenbatekoan.

Lizitatuzaileek kontzeptu bakoitzerako eskaintako prezio unitarioak unitate hauen arabera neurtuko dira:

Kontzeptua	Gehienezko prezio unitarioa	Unitateak urte/denboraldiko	Zenbatekoa
Denboraldiaren aurrerapen aldizkaria	0,5420 €	9.000	4.878,00 €
Denboraldiko egitaraua	2,4720 €	3.000	7.416,00 €
Denboraldiaren laburpen kuadriptikoa	0,1542 €	10.000	1.542,00 €
Denboraldi sinfonikoko eskuko egitaraua	0,6107 €	51.000	31.144,68 €
Ganberako denboraldiko eskuko egitaraua	0,8160 €	3.950	3.223,20 €
Zenbait diptiko	0,1908 €	6.000	1.144,80 €
Kartela	7,6560 €	1.500	11.484,00 €
Olana mikrozulatu	930,0000 €	2	1.860,00 €
Kontzerturako enkarte edo "flyerrak"	0,2251 €	9.000	2.026,08 €
GUZTIRA (BEZ gabe)			64.718,76 €

Edozelan ere, GUZTIRAKO zenbateko hori eskaintzen gehienezko kopurua da konparaziozko azterketarako, eta zenbateko hori gainditzen duten eskaintzak automatikoki baztertzea dakar, baita gehienezko izaera duten prezio unitarioak gainditzen dituztenak ere.

c) HEDABIDEEN

KUDEAKETARAKO:

C.1. Tarifa ofizialekiko deskontua

Ez da lizitazio-mota finkatzen; izan ere, lizitatuzaileek eskainiko dute publizitateko gunetako kontratazio sektore bakoitzeko hedabideetako tarifa ofizialei aplikatu beharreko deskontuaren

ehunekoa, honako hauen arabera:

Kontzeptua	Ehunekoa (%)
Bizkaiko prentsako tarifa ofizialekiko deskontua	
Bizkaiko irratiko tarifa ofizialekiko deskontua	
Bizkaiko telebistako tarifa ofizialekiko deskontua	

Taulan adierazitako hedabideen sektore bakoitzerako deskontuko ehuneko bakarra eskainiko da, eta aplika daitezkeen bakarrak izango dira kontratuaren iraunaldian, BOSek kasu bakoitzerako zehaztutako posizioa (bikoitia, bakoitia, kolorea, TBko lehentasunezko blokea, etab.) alde batera utzita.

c.2. Agentzia-komisioa

Lizitatuzaileek sektore eta hedabideei edo zerbitzu analogoei aplikatu beharreko ehuneko bakarra eskainiko dute, tarifa ofizialekiko eskainitako deskontua kendu ondoren.

- Eskaintzen ehuneko baxuena.....%5.

Ehuneko hori eskaintzen gehieneko ehunekoa da, eta zenbateko hori gaintitzen duten eskaintzak automatikoki baztertuko dira.

Artikulu honetan adierazitako kopuru hauek guztiak **BEZ GABEKOAK** dira.

04. ORDAINTZEKO ERA.

Kontratuaren prezioaren ordainketa dagokion hileko faktura aurkeztean egingo da, harekin bat etorritik. Bertan, honakoak egongo dira jasota, bakoitza bere aldetik:

- 1- Sormena: kontratatutako prezioaren zati alikuota. (1/12)
- 2- Publizitate-materialak: hilabete horretako publizitate-materialei dagokien prezioa, aurreikusitako prozedurari jarraituz eskatu eta emanda.
- 3- Hedabideen kudeaketa: hilabete horretan publizitate-txertatzei dagokien prezioa.



05. PREZIOEN BERRIKUSPENA.

Kontratu honetan ez dagokio prezioen berrikuspena.

Justifikazioa: kontratuaren kostuen bilakaera eskainitako prezioan jasotzen da, eta prezioak berrikusteko teknikaren bidez beste faktore zuzentzaile batzuk erabiltzea baztertzen da.

06. BERMEAK.

Kontratuaren esleipena duen enpresak, hartutako obligazioak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea osatu beharko du derrigorrez, berrogeita hamazortzi mila ehun eta hogeita hiru euro eta laurogeita hamabost zentimoko zenbatekoan. (58.123,95 €)

Aipatutako bermea eratzeko epea hamabost egun naturalekoa izango da, kontratuaren esleipenaren berri eman eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta prezioaren atxikipen moduan edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 96 3/2011 Errege Dekretu Arautzailearen 14. artikuluan ezarritako edozein modutan eratu ahal izango da.

Bermeen itzulketa (osoak edo partzialak, hala beharko balitz), bermearen epea amaitu ostean egingo da, esleipendunak bere kontratu-betebehar guztiak bete ostean. Eta hori, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 97. artikulua ezarritakoaren arabera.

07. KONTRATUA BETEARAZTEA.

Kontratuaren betearazpena kontratistaren arrisku eta galdu-gordean egingo da.

Kontratua plegu honetan biltzen diren klausulen arabera beteko da, eta, hala beharko balitz, txostenean bildu diren xehetasun teknikoaren arabera, betiere, BOSek interpretatu ditzan kontratistari ematen dizkion jarraibideekin bat etorritik.



08. ESLEIPENDUNAREN OINARRIZKO BETEBEHARRAK.

OROKORRAK. Esleipena duenak ordaindu beharko ditu kontratatutako zerbitzua osorik betetzeko egin beharreko gastu guztiak: kontratua prestatzeko eta formalizatzeko izapideak, materialak eta instalazioak, bitarteko tresnak, eskulana, Gizarte Segurantzaren zergak, mota guztietako erantzukizunak eta aseguruak, eta esleipena duen enpresari dagozkion edozein motatako beste zama eta betebeharrak guztiak (esleipena egiten denean horiek guztiak onartzen baititu), baita kontratutik edo lizitazioan parte hartzetik eratorritako beste guztiak ere.

Esleipendunari dagokio kontratua betearazteko beharrezkoak diren baimen eta lizentzia ofizialak zein partikularrak eskuratzea.

Enpresa esleipendunak diru-kopuru gehigarria jasotzeko eskubiderik gabe eskaini beharko ditu kontratua egoki garatu eta betetzeko beharrezko zerbitzuak: laneko bileretara edo informazio bileretara joatea, etab. Betebeharrak hori bermepeko aldia amaitu arte mantenduko da.

ARDURAK ETA KALTEAK. Esleipenduna izango da egiten dituen lanen kalitate teknikoaren eta egindako prestazio eta zerbitzuen arduraduna. Era berean, kontratua betetzeari dagozkion ekintzak egiterakoan sortzen diren kalteen erantzule ere izango da, SPKLTBren 214. artikulua dioenarekin bat etorritik.

Bermearen indarraldia amaitu arte, esleipena duen enpresaren erantzukizuna izango dira kontratatutako lanak eta hauetan egon daitezkeen akatsak. Gainera, BOSeko arduradunek lanak egiten egon diren artean ikuskatzea edo egiaztapenak, balorazioak zein zatikako egiaztapenak onartzea ez da izango salbueslea eta ez dio esleipena duen enpresari inolako eskubiderik emango.

LAN-KONTRATUKOAK. Esleipenduna derrigortuta dago lan-kontuei, Gizarte Segurantzari eta laneko osasunari dagozkien indarreko lege guztiak betetzera, eta BOSek ez du ardurarik izango zentzu horretan egon daitezkeen arau-hausteetan.

Esleipena duen enpresak kontratu hau betearazteko garatu beharreko jarduerak guztiak egiteko langile nahikoa eta trebatuak izan beharko ditu, Esleipena duen enpresak erabakiko du zeintzuk diren bere



langileen beharrizanak, eta horrek ez du aurreko lerroaldean esandakoa aldatuko. Edozein kasutan ere, behar den moduan koordinatuta, eskaini beharreko zerbitzuak epeen barruan eta ondo eskaintzeko gai dela frogatzen duen giza taldea izan beharko du.

Esleipena duen enpresak bere lan-betebeharrak betetzea ez da BOSen ardura zuzena izango, ezta elkartasunezko ardura edo zeharkakoa ere. Era berean, ez dira haren ardura izango, kontratuak irauten duen bitartean edo kontratua amaitu ondoren, izan daitezkeen lan-kontratuen amaierak. Esleipena duen enpresak hartu beharko ditu bere gain horietatik erator dakizkion ondorio juridikoak zein lan-ondorioak, bai kontratu honek irauten duen artean, eta bai kontratua amaitu eta gero. BOSek ez du izango inolako lan-arloko harreman juridikorik, zibilik ez administratiborik zerbitzuak eskaintzeko esleipena duen enpresako langileekin.

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA. Edozein kasutan, laneko arriskuen prebentzioari (LAP) dagokionez, indarrean dagoen legeak ezartzen dituen betebeharrak guztiak bete behar dira. Horretarako, kontratuak ezartzen duen zerbitzua eskaintzeko garatzen diren jardueretan LAPerako indarrean dagoen legedia egoki erabiltzeko legeak ezartzen dituen tresnak garatuko dira. Esleipena duen enpresa izango da esandako betebeharrak betetzearen arduradun bakarra. Hori dela eta, bera izango da betebeharrak ez betetzearen edo txarto betetzearen ondorioz gertatu daitezkeen arduradun. Enpresa esleipenduna derrigortuta dago LAPerako arauak Euskalduna Jauregian edo zerbitzua garatzen duen beste lekuetan betetzera.

LANEKO HARREMANEI ETA LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOARI LOTURIKO ZIGORRAK. Era berean, lan-harremanei (banakakoak edo kolektiboak) edota LAPi buruzko zigorra jasoz gero, esleipendunak BOSi unean-unean jakinarazi beharko dio, kontratua gauzatzean egindako ekintzengatik, baita kontratuaren aurka proposatutako errekurtsio eta horiei dagozkien ebazpenengatik.

GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNA. Kontratatik bermatuko du, kontratua gauzatzean, dokumentazio, publizitate, irudi edo materialetan hizkuntzaren erabilera ez-sexista egin dadin, eta emakumeen bazterkeriazko irudiak edo estereotipo sexistak saihestu daitezkeen, berdintasunezko balioak dauzkan irudi bat sustatzeaz gain, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoko



rolen zein identitateen pluraltasuna islatuta.

Kontratatik bete egin beharko ditu Eusko Legebiltzarrak onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 4/2005 18 Legean ezarritako printzipio eta betebeharrak zein Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 3/2007 22 Lege Organikoan ezarritakoak. Enpresa kontratatik 250 langile baino gehiago dituenen, emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan bat daukala justifikatu beharko du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legean xedatutako edukiarekin.

DATU PERTSONALAK. Esleipena duen enpresak hala behar duelako edo kontratua betetzeko beharrezkoak zaizkiolako, automatizatutako izaera pertsonaleko datuak erabili beharko balitu, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak diotenari eta otsailaren 25eko 2/2004 Legeari erreparatuta egingo luke; izan ere, izaera pertsonaleko datuen babesari dagozkion arauak eta ezarpen horiek garatzen dituztenak biltzen dituzte.

Esleipena duen enpresak ezingo ditu ezarri edo erabili kontratua dela-eta automatizatuta dituen datu pertsonalak, kontratuan agertzen ez diren helburuetarako.

Kontratuak eskatzen duen prestazioa bete ondoren, erabilitako izaera pertsonaleko datuak BOSi eman beharko zaizkio. Esleipena duen enpresak desegin egingo ditu dituenak, ez baldin badu BOSen idatzizko baimenik lortzen etorri daitezkeen zerbitzu berriak egiteko. Kasu horretan, bost urtean gorde ahal izango ditu datuak, dagozkien segurtasun baldintzekin.

JABETZA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEA. Lizitazio honen xede diren zerbitzuak direla-eta enpresa esleipendunak egiten dituen lan guztien jabea BOS izango da.

Enpresa esleipendunak aplikagarriak diren Ustiapen Eskubide guztiak (Ustiapen Modalitate guztietan) lagatzen dizkio BOSi modu eksklusiboan, mundu osorako eta legeak baimentzen duen iraupenik luzeenerako; eta hori, enpresa esleipendunak edo bertako langile zein kolaboratzaileek Jabetza Intelektualaren esparruan garatu ditzaketen sorkuntza guztiei dagokienez, lizitazio honen xede diren zerbitzuak betez edo zerbitzu horiek direla eta.



Enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du, BOSen berariazko baimenik ezean, egindako lanen emaitzak ez erabiltzeko, erreproduzitzeko, transmititzeko, aldatzeko edo hedatzeko, BOSen alde aurreko eta berariazko baimenik gabe.

Era berean, enpresa esleipendunak bere kostuz defendatuko du hirugarrenek BOSen aurka egiten duten edozein erreklamazio edo erreklamazio-mehatxu, baldin eta erreklamazio horien oinarria honakoa bada: lanok enpresa esleipendunak garatu beharrekoak izatea, lizitazio honen barruan; hirugarrenen jabetza intelektual edo industrialaren eskubideak urratzea; edo hirugarrenen sekretu komertzial edo industrialen eskuratze bidegabea izatea.

Esleipena duen enpresak egin beharko ditu, behar den kasuetan, utzi behar diren jabetza intelektualaren eskubideen jabeekin egin beharreko kontratuak.

SEKRETU PROFESIONALA ETA ISILPEKOTASUNA. Enpresa esleipendunak derrigorrez gorde beharko du sekretu profesionala, kontratuaren xede den lana egiteko orduan BOSek emandako informazioari eta dokumentazioari dagokienez.

Ondorioz, debekatuta dago euskarri magnetikoetan zein ohikoetan jasota dagoen BOSen isilpeko informazioa erreproduzitu, banatu, komunikatu, eraldatu, helarazi edo beste edozein manipulazio egitea, inongo pertsona fisiko edo juridikori, dohainik edo diru trukean.

Betebehar hori kontratuaren xede diren jarduerak irauten duten bitartean eta jarduerak amaitu ostean egongo da indarrean, informazio hori jabari publikokoa izatera heldu arte edo, legezko beste arrazoi batzuk direla-eta, isilpekotasuna amaitu arte.

Enpresa esleipenduna arduratuko da bere zerbitzuplean dauden langileek eta bertako kolaboratzaile edo azpikontratatu gisa ari diren pertsonen zein erakundeek isilpekotasun arloko betebeharrak bete ditzaten.

Enpresa esleipendunak soilik kasu batean emango du isilpeko informazioa: kontratatutako jarduera eta



zerbitzuak garatzeko orduan, langileek informazio hori behar dutenean.

Enpresa esleipendunak ez du BOSen isilpeko informazioa erabiliko bere helburuetarako, helburu pribatuetarako edo beste edozein helburutarako. Isiltasun profesionalaren betebeharra apurtzen badu, esleipena duen enpresak kalte-ordainak ordaindu beharko ditu, BOSi eta kaltetutako pertsonei egindako kalte-galerengatik.

LEHIA ASKEKO BERMEA. Prozedura honetan eta etorkizunekoetan zerbitzua ematen duen kontratistak bere egoera modu okerrean erabili ez dezan, aldaketa-prozesuan zehar honakoak egin beharko ditu derrigorrez:

- Eskualdaketarako behar den informazio tekniko eta administratibo guztia ematea, gehienez ere, 2 asteko epean.
- Zerbitzu-mailak ez degradatzea.
- Aldaketa-prozesua ez oztopatzea.

Era berean, kontratua indarrean dagoen bitartean, eta esleipendun aldaketagatiko txandakatze posiblea ahalbidetzeko asmoz, enpresa esleipendunak erabiliko dituen teknologiek eta sistemek ez diote kontratatutako zerbitzuen kudeaketa zailduko edo oztopatuko esleipendun berri bati.

KONTRATUA GAUZATZEKO HIZKUNTZA-BALDINTZAK. Euskararen erabileraren normalkuntzarako azaroaren 24ko oinarrizko 10/1982 Legeak arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarritako hizkuntza ofizialtasun bikoitzeko erregimenaren eta garatzen duen araudiaren mende dago; hortaz, kontratuaren esleipena duen enpresak bi hizkuntzen (euskara eta gaztelania) koofizialtasuna zaindu beharko du kontratua gauzatzean, eta jarduerak elebitasuneko eta herritarren hizkuntza eskubideei buruzko irizpideen arabekoak izan beharko dute.

Hizkuntza betebeharrak kontratua gauzatzeko baldintza dira, eta, betetzen ez badira, kontratuko edozein klausula bete ez izanagatik aurreikusitako izaera orokorreko ondorioak dakartza.



09. BERMEAREN ONARPENA ETA EPEA.

Obrak bukatu, eta, gehienez hogeita hamar eguneko epean, kontratuaren helburuak betetzeko egintza formala eta positiboa egingo da.

Era berean, hirurogei eguneko epea finkatzen da, onarpen formala egiten den egunetik zenbatzen hasita, SPKLTBk ezarritako ondorioen berme gisa. Bermearen epe honetan, enpresa kontratista izango da egindako lanetan edo eskainitako zerbitzuetan agertu daitezkeen hutsen edo akatsen erantzulea. Bermearen indarraldia amaitu arte, esleipena duen enpresaren erantzukizuna izango dira kontratatutako lanak eta hauetan egon daitezkeen akatsak. Gainera, BOSeko arduradunek lanak egiten egon diren artean ikuskatzea edo egiaztapenak, balorazioak zein zatikako egiaztagiria onartzea ez da izango salbueslea eta ez dio esleipena duen enpresari inolako eskubiderik emango.

Aipatutako epea BOSek arazorik jarri gabe igarotzen bada, esleipendunaren ardura indarririk gabe geldituko da.

10. BETEBEHAR-HAUSTEA ETA ZIGORRAK.

Kontratuari dagozkion betebeharrak betetzen ez baditu, esleipena duen enpresari zigor ekonomikoak ezarriko zaizkio, aurretiaz entzunaldia eginda.

Betebeharren arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izango dira, euren larritasunaren, zerbitzuan izan duten eraginaren eta BOSi zein hirugarren pertsoneri eragin dizkieten kalteen arabera.

Esleipena duen enpresari zigorra ezarriko zaio kontratuak ezarritako baldintzetako edo eskainitako hobekuntzetako bat edo gehiago betetzen ez baditu:

A) ARAU-HAUSTE OSO LARRIAK:

- Kontratututako prestazioak etetea arrazoi handirik edo BOSek onartutako justifikaziorik gabe.
- Kontratua aldi baterako edo behin betiko bertan behera uztea, aurretik baimenik eman gabe.
- Esleipena duen enpresari eskatu ahal zaizkion betebeharren ez-betetze larria edo errepikatua.
- Arrazagatiko, sexuagatiko, erlijioagatiko, hizkuntzagatiko edo iritziagatiko bazterketari lotutako



edozein ekintza.

- Egin beharreko lanen betearazpenean edota zerbitzuetan atzerapenak izatea, horrek oso kalte larria eragingo balio BOSen irudiari.
- Hiru arau-hauste larri egitea.

B) ARAU-HAUSTE LARRIAK:

- Izango duten eraginagatik oso larriak izango ez diren BOSek emandako jarraibideak edo aginduak eta kontratuan dauden betebeharrak ez betetzea edo ez egitea.
- Kontratuan agertzen diren lanen atzerapena.
- Arau-hauste arin bi egitea.

C) ARAU-HAUSTE ARINAK:

- Esleipena duen enpresari eskatu ahal zaizkion betebeharretan huts egitea edo arrazoirik gabeko arduragabekeria izatea.

ZIGORRAK: Esleipena duen enpresak arauak hausteak honako zigorrak eta ondoren azaldutako zenbatekoekin ezarri ahal izango ditu:

- 1) Oso hutsegite larriak: hilabeteko fakturaren %50i dagokion zigor ekonomikoa, hutsegite bakoitzeko.
- 2) Hutsegite larriak: hilabeteko fakturaren %25i dagokion zigor ekonomikoa, hutsegite bakoitzeko.
- 3) Hutsegite arina: hilabeteko fakturaren %5i dagokion zigor ekonomikoa edo ohartarazpena, hutsegite bakoitzeko.

BOSen Zuzendaritzari dagokio, edo honek eskuduntza ematen dion organoari, kontratua ez betetzeagatik zigorrak ezartzea.



Esleipena duen enpresak arau-hauste larriak edo oso larriak egiten dituenean, BOSek aukeratu egin ahal izango du kontratua haustearen edo goian azaldutako zigorrak ezartzearen artean.

Zigorren zenbatekoak, normalean, enpresa esleipendunari ordaindu beharreko fakturetatik kenduko dira.

Zigorrek ez dute salbuetsiko esleipena duen enpresak eskainitako zerbitzuengatik hirugarren pertsoneri edo BOSi egindako kalte-galerak ordaintzea. Zerbitzutik erator daitezkeen kalte-ordainak ere berak ordaindu beharko ditu.

11. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK.

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak SPKLTBren 223. eta 308. artikuluetan agertzen direnak izango dira.

12. ESLEIPEN PROZEDURA.

Kontratu hau **prozedura ireki** bidez esleituko da, eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean (EBAO) argitaratuko da.

Era berean, BOSen kontratatzailearen profilean ere argitaratuko da lizitazioa; honako atari informatiko edo webgunearen bidez sartu ahal izango da bertara:

Leku horretan bertan, pleguak eta dokumentazio osagarria egongo dira eskuragarri.

13. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK.

Eskaintzak baloratzeko irizpideak (kontratua esleitzeko oinarri gisa hartu behar dira) honakoak dira:

- a) **Formulen bidez zenbatu daitezkeen irizpideak**..... 51 punturaino.
- b) **Formulen bidez zenbatu ezin diren irizpideak**..... 49 punturaino.

14. FORMULEN BIDEZ ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEN BALORAZIOA.

Plegu honetan lizitazioko prezioak hainbat kontzepturen baitan eskaintzea eskatzen denez, azken puntuazioa banakapen honen arabera egingo da. Gehienez, honakoa baloratuko da:

Puntuak	Kontzeptua
10 puntu	Sormenari dagokion prezioa.
29 puntu	Publizitate-materialaren ekoizpenari dagokion prezioa.
2 puntu	Agentzia-komisioa.
10 puntu	Hedabideetako tarifa ofizialekiko deskontua, haztapen honen arabera: <ul style="list-style-type: none"> • 4,5 puntu, prentsako tarifa ofizialen deskontuko • 2 puntu, irratiko tarifa ofizialen deskontuko • 3,5 puntu, telebistako tarifa ofizialen deskontuko

14.1. Sormenaren eta publizitateko materialaren ekoizpenaren balorazioa.

Puntuaziorik handiena eskaintza ekonomikoenari emango zaio, eta gainerako eskaintzak alderantzizko hiruko erregelaren arabera puntuatuko dira, formula honekin:

$$\text{Puntuazioa} = (\text{eskaintzarik ekonomikoena} / \text{eskaintza}) \times \text{puntuaziorik altuena}$$

Eskaintza ezohikoak edo neurrigabeak: bi kasuetan, eskaintzen balioak ezohiko edo neurrigabetzat hartuko dira zenbatekoa guztira (kontzeptu bakoitzarena) hamar (10) unitate kontzeptualetatik beherakoa denean, onartutako eskaintzen batez besteko aritmetikoaren arabera.

Eskaintzek balio ezohiko edo neurrigabeak badituzte, SPKLTBko 152.3 artikuluan xedatutako prozedura jarraituko da.

Prezioa baloratzeko, justifikatu ondoren kontratazio organoak onartu dituen balio ezohiko eta neurrigabeak



dituzten eskaintzak soilik hartuko dira kontuan.

14.2 Agentzia-komisioaren balorazioa.

Puntuaziorik handiena eskaintza ekonomikoenari emango zaio, eta gainerako eskaintzak alderantzizko hiruko erregelaren arabera puntuatuko dira, formula honekin:

$$\text{Puntuazioa} = (\text{eskaintzarik ekonomikoena} / \text{eskaintza}) \times \text{puntuaziorik altuena}$$

Kalkulatzeko, formulan kontuan hartu beharreko prezio baxuena ez da %0,10etik beherakoa izango.

14.3. Hedabideetako tarifa ofizialeekiko deskontuaren balorazioa.

Deskonturako ehuneko handiena eskaintzen duen lizitatzailleak erdietsiko du puntuazio altuena, eta gainerako lizitatzailleak proportzionaltasunez puntuatuko dira: hedabide bakoitzaren deskontuaren puntuazio altuena deskontu-eskaintzaren balioaren (eskainitako DESKONTUA) eta deskontu-eskaintza onenaren balioaren (DESKONTU onena) arteko zatiketaren zenbatekoarekin biderkatuko da.

Beraz, proposamen bakoitzeko prentsako deskontu-eskaintzaren puntuazioa lortzeko (PUNTUAZIOA), esaterako, formula hau erabiliko da:

$$\text{PUNTUAZIOA} = 4,5 \times (\text{eskainitako DESKONTUA} / \text{DESKONTU onena})$$

Eskainitako deskontuak indarreko tarifen arabera egin beharko dira, eta ez da gainordainik gehituko ezin kontzeptugatik (lehentasunezko posizioak, orrialde bakoitiak, etab.).

Lizitatzailleek deskonturako ehunekoa adierazi beharko dute (bi dezimaletan) aipatutako atal bakoitzean, eta atalen batean ehuneko bat baino gehiago adierazten dituzten eskaintzak baztertu egingo dira, baita aurretik aipatutako puntuatu beharreko atalen batean deskonturako ehunekorik adierazten ez duten eskaintzak ere.

15. FORMULEN BIDEZ ZENBATU EZIN DIREN IRIZPIDEEN BALORAZIOA.



Proposamen sortzaileak baloratuko dira. Oro har, aurkeztutako proposamenen sormena baloratuko da, irizpide hauei jarraiki:

- Lortu nahi diren helburuekiko egokitzapena.
- Proposamenaren originaltasuna, publiko xedeak ezagutu eta gogora dezan.
- Mezuaren argitasuna.
- Hainbat sorkuntza-piezaren arteko koordinazioa.

Puntuazioa baremo honen arabera esleituko da:

- Eskaintza Urria Irizpidearen gehienezko puntuazioaren %40 arte
- Eskaintza Nahikoa Irizpidearen gehienezko puntuazioaren %50 arte
- Eskaintza Ona Irizpidearen gehienezko puntuazioaren %75 arte
- Eskaintza Nabarmengarria Irizpidearen gehienezko puntuazioaren %100 arte

PUNTUAZIORAKO GUTXIENKO ATALASEA: SPKLTBko 150.4 artikularekin bat etorriz, balorazio globalerako onartu daitezen, formulen bidez zenbatu ezin diren irizpideetan lizitatzailerak puntuaziorako gutxieneko atalasea erdiestea eskatuko da; hortaz, Kontratazio Mahaiak ez ditu kontuan hartuko 25 puntura iristen ez diren eskaintzak.

Bere betearazpenagatik edo edukiengatik kontratuaren arrazoia edo helburuak betetzeko egokiak ez diren proiektuak aurkezten dituzten eskaintzak onartezinak izango dira. Era berean, onartezinak izango dira, definituta ez daudelako lanen azken emaitza ebaluatzea ahalbidetzen ez duten eskaintzak.

BOSEk esleitu gabe utzi ahal izango du lizitazioa, baldin eta eskaintza batek ere ez baditu betetzen zerbitzua modu egokian emateko baldintzak.

16. KONTRATATZEKO ESKATUTAKO BALDINTZAK.



16.1 Kontratatze ahalmena.

Kontratatze prozedura honetan, ahalmen juridiko osoa eta jarduteko ahalmen osoa duten pertsona naturalek eta juridikoek parte hartu ahal izango dute, eta, orobat, ondo frogatzen badute ez daudela sartuta SPKLTBren 60.1 artikulua ezartzen dituen kontratatze debekuren batean.

Era berean, kontratua beren kabuz egin ahal izango dute, edo, bestela, baimendutako pertsona baten ordezkariaren bidez, ondorio horretarako behar adina ahalorde emanaz. Pertsona juridiko baten ordezkari pertsona horretako kide bat aurkezten denean, horretarako ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Kasu batean zein bestean, ordezkariari ere eragiten diote aipatu diren kontratatze ezintasun-kausak.

16.2. Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa.

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioko gutxieneko baldintzak: azken hiru urteetako negozio-bolumen handienari dagokion urtearen arabera, urteko negozio-bolumenak 290.619,77 €-tik beherakoa izan beharko du, eta, era berean, kontratuaren gasturako gehienezko aurrekontuaren baliokidea izango da.

Honela egiaztatuko da: urteko negozio-bolumena onartu eta Merkataritza Erregistroan jasotako urteko kontuen bidez egiaztatuko da, enpresaburua erregistro horretan badago; bestela, izena emanda egon behar duen erregistro ofizialean jasotako arabera. Merkataritza Erregistroan izena eman ez duten enpresaburu indibidualen kasuan, urteko negozio-bolumena Merkataritza Erregistroak legez onartutako inbentario eta urteko kontuen liburuen bidez egiaztatuko da.

(Oharra: urteko negozio-bolumen gisa hartu behar da merkataritzako legedian xedatutako urteko kontuen arauzko ereduaren galera eta irabazien kontuan jasotako negozio-kopuruaren zenbateko garbia.)

16.3. Kaudimen tekniko edota profesionala.

Kaudimen tekniko edota profesionalerako gutxieneko baldintzak: kontratuaren xedea den mota edo izaera bereko lanak egiten esperientzia izan beharko da, eta azken bost urteetako betearazpen gehieneko urtean pilotutako urteko zenbatekoak 203.433,83 €-koa edo gehiagokoa izan beharko du, kontratuaren gastuaren gehienezko aurrekontuaren %70aren baliokidea, hain zuzen ere.

Honela egiaztatuko da: azken bost urteotan egindako lan edo zerbitzu nagusien zerrenda egin beharko dute,



eta, bertan, zenbatekoa, datak eta hartzaile publiko nahiz pribatua adierazi beharko dira. Lan eta zerbitzu horiek egiaztatzeko, organo eskudunak eman edota ikus-onetsitako ziurtagiriak baliatuko dira, jasotzailea sektore publikoko erakundea denean; jasotzailea subjektu pribatua denean, berriz, azken horrek emandako ziurtagiria edota, halakorik ezean, enpresaburuaren adierazpena.

16.4. Eskatzen den kaudimena ordeztu dezakeen enpresa-sailkapena.

Erdietsitako sailkapena 2015/11/5a baino lehenagokoa bada eta 2020/01/01a arte baliozkoa bada: taldea: T, azpitaldea: 01, kategoria: B (2. kategoria berria).

17. PROPOSAMENEN AURKEZPENA.

Proposamenak BOSen egoitzan aurkeztuko dira (Euskalduna Jauregia, Abandoibarra etorbidea 4, 48011 Bilbao), **2017-02-22ko 14:00etara arte.**

Proposamena postaz bidaltzen denean, justifikatu egin beharko da noiz egin den posta-bulegoan bidalketaren ezarpena, eta, egun berean telefaxa edo mezu elektronikoa bidaliz, jakinarazi egin beharko zaio kontratazio-organoari eskaintza igorri dela.

Bi baldintzok bete ezean, dokumentazioa ez da onartuko, baldin eta ezarritako epea amaitzen den egun eta orduaren ondoren jasotzen bada. Hala ere, data horren ondoren hamar egun natural igarotzen badira proposamena jaso gabe, hura inola ere ez da onartuko.

Proposamena entregatuta eta onartuta dagoenean, lizitazioa egin duen enpresak ezingo du berriro hartu, justifikatutako arrazoirik ez badago. Beste eskaintzarik ere ezingo du aurkeztu, ez berak bakarrik ez beste enpresa batzuekin aldi baterako enpresa bat osatuta. Ezingo du Aldi Baterako Enpresen Elkarte batean baino gehiagotan agertu. Aipatutakoa bete ezean, baztertu egingo dira enpresa horrek aurkeztutako proposamen guztiak.

Lizitatuzaileek itxitako hiru gutun-azal aurkeztu beharko dituzte (A, B eta C), eta, gutun-azal bakoitzean, honakoa egongo da idatzita: **“BOSentzako PUBLIZITATE ZERBITZUEN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO**



PROPOSAMENA”.

Gutun-azal guztiek egon beharko dute kanpoan identifikatuta, honako datuekin:

GUTUN-AZALA:
AZPITITULUA: PUBLIZITATE ZERBITZUAK

Enpresaren izena:
Helbide soziala:
Posta elektronikoa:
Harremanetarako telefonoa:
Faxa:
Ahaldunaren izen-abizenak:
Ahaldunaren sinadura:

“A” gutun-azalaren azpitulua “ERANTZUKIZUNEKO ADIERAZPENA” izango da.

Erantzukizuneko adierazpena kontrataziorako agiri europar bakarraren (KAEB) bidez aurkeztuko da, eta interesa duen enpresaren adierazpen formal eta eguneratua izango da. Agiri hori kontrataziorako agiri europar bakarraren inprimaki normalizatua ezartzen duen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 Araudiaren (EB) bidez onartu da. Plegu honetako 3. eranskinean daude agiria betetzeko jarraibideak.

“B” gutun-azalaren azpitulua “FORMULA BIDEZ ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA” izango da.

Eskaintza ekonomikoa izango du, 2. eranskinean jasotako ereduaren arabera.

Honelako proposamenak ez dira onartuko:

- BOSek eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi ezagutzea galarazten duten kontraesanak, omisioak, errakuntzak edo ezabaketak dituztenak.
- Aztertu eta onartu den dokumentazioarekin bat ez datozenak.
- Gehieneko lizitazio-oinarria gainditzen dutenak.

- Proposamenaren zenbatekoan ageriko errakuntza dutenak.
- Ezarritako proposamen eredu funtsean aldatzen dutenak.
- Lizitatuak proposamena bideraezin bihurtzeko errakuntza edo funsgabetasuna badagoela onartzen duenean.

Letretan eta zenbakietan adieraziriko eskaintzak bat ez datozenean, letretan ematen dena gailenduko da, salbu eta, agiriak aztertzearen ondoriozko irizpide arrazionalak erabiliz, Kontratazio Mahaiak beste jarrera bat hartzen badu.

Jakinarazten da eskaintza ekonomikoaren kontu-errakuntzek hura zuzentzea eragingo dutela.

Eskaintzak baztertzea eragiteko modukoak ez diren kontraesanak edo errakuntzak egonez gero, Kontratazio Mahaiak irizpide arrazionalen arabera jarrera hartuko du, BOSentzat onuragarriena dena, betiere.

“C” gutun-azalaren azpitulua “FORMULA BIDEZ ZENBATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA” izango da.

Sormena eredu honen arabera baloratuko da:

Zk.	Elementua	Aurkeztekoa
1	PRENTSA	Prentsan argitaratuko den iragarki baten diseinuaren zirriborro originala, 2016-2017 denboraldiko 7. egitaraua hartuz gaitzat.
2	PUBLIZITAT E-MATERIALA	Publizitate-material hauen diseinuaren zirriborro originalak: <ul style="list-style-type: none"> – Iragarpen-kartel bat, 2016-2017 denboraldiko 17. egitaraua hartuz gaitzat. – 2016-2017 denboraldiko egitarauaren aurrerapen bat, denboraldi horri dagozkion datuak erabilita. (*) – Denboraldiko egitarau bat, 2016-2017 denboraldiko sei egitarau sinfonikotako datuak hartuz gaitzat. Gainera, 2016-2017 denboraldiko egitarauko 60 eta 65. orrialdeen artean jasotako informazioa erabili behar da.

		<p>(*)</p> <ul style="list-style-type: none"> – Denboraldi sinfonikoko eskuko egitaraua, 2016-2017 denboraldiko 6. egitarauari dagokiona. (*) <p>Beste gai batzuk dituzten zirriborroak ez dira onartuko.</p>
3	IRRATIA	<ul style="list-style-type: none"> – Irratirako 30 segundoko euskarazko iragarkia egiteko proposamena (testua edo grabazioa), 2016-2017 denboraldi sinfonikoko 10. egitarauari buruzkoa. – Irratirako 30 segundoko gaztelaniazko iragarkia egiteko proposamena (testua edo grabazioa), 2016-2017 denboraldi sinfonikoko 10. egitarauari buruzkoa. <p>Irratiko iragarkiak CD formatuan grabatuta aurkeztuko dira.</p>
4	TB	<ul style="list-style-type: none"> – Telebistarako 30 segundoko euskarazko iragarkia egiteko proposamena (testua edo grabazioa), 2016-2017 denboraldi sinfonikoko 10. egitarauari buruzkoa. – Telebistarako 30 segundoko gaztelaniazko iragarkia egiteko proposamena (testua edo grabazioa), 2016-2017 denboraldi sinfonikoko 10. egitarauari buruzkoa. <p>Lizitatuzaileak iragarkien gidoia eta “story board” aurkeztuko ditu.</p>

(*) Lizitatuzaileek dokumentu hori deskargatu ahal izango dute, pdf formatuan, BOSeko kontratatuzailearen profilean. Paperean ere eskuratu ahal izango dute, BOSeko bulegoetara joanda.

Hala dagokionean, aurkeztutako zirriborro/dokumentu/euskarrien jabetza BOSena izango da, eta horiek ez erabiltzeko konpromisoa hartuko du, lizitazioaren eta artxiboaren helburuetarako izan ezik.

18. AGIRIAK HAUTATZEA ETA ESKAINTZAK ZABALTZEA.

“A” gutun-azalaren irekiera

Eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denean, BOSek “A” gutun-azala irekiko du. Inolako akatsik aurkitzen badu, hiru egun balioduneko epea emango du, lizitatuzaileak akatsa zuzendu dezan.



“C” gutun-azalaren irekiera

Ekitaldi publikoan, onartutako lizitatzaileri dagokien FORMULA BIDEZ ZENBATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA delako “C” GUTUN-AZALA irekiko da.

Ondoren, Kontratazio Mahaiak proposamenak baloratuko ditu, formula bidez zenbatu ezin diren esleipen irizpideei jarraituz.

“B” gutun-azalaren irekiera.

Formula bidez zenbatu ezin diren irizpideak baloratu ondoren, Kontratazio Mahaiak irizpide horien arabeko eskaintzei esleitutako haztapena jakinaraziko du, ekitaldi publiko batean.

Hurren, onartutako proposamenen “B” GUTUN-AZALA: FORMULA BIDEZ ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA irekiko da, eta haien barruko eskaintza ekonomikoak irakurriko dira.

Kontratazio Mahaiak esleitzeko proposamena egingo dio kontratazio-organoari, behin eskaintzen ebaluazio orokorra egin eta gero.

19. ESLEIPENA.

Kontratazio organoa BOSen Presidentetza izango da. Kontratu esleitzeko, kontratazio organoak honako kideez osatutako kontratazio batzorde baten laguntza izango du:

- BOSeko Patronatuko kidea.
- BOSeko zuzendari nagusia.
- BOSeko komunikazio arduraduna
- Idazkaria: BOSeko Patronatuko idazkaria.

Kontratazio organoak beheranzko ordenan sailkatuko ditu aurkeztutako proposamenak, plegu honetan ezarritakoaren arabera neurrigabetzat edo ezohikotzat jotakoak kenduta.

Kontratazio organoak ekonomiaren aldetik eskaintza onuragarriena egin duen lizitatzaileri eskakizuna egingo

dio, hamar egun baliouduneko epean, eskakizuna jasotzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, hurrengo dokumentazioa aurkez dezan:

- a) Kontratatzeko legeak eskatutako baldintzen dokumentazio administratibo justifikagarria.
- Pertsona fisikoa: proposamena egiten duen pertsonaren NANA edo hura ordezteko agiri fedemailea.
 - Pertsona juridikoa: eraketako eskritura edo agiria, estatutuak edo sorrerako egintza, haietan jarduera zehazten duten arauak ageri direla, eta, hala dagokionean, erregistro ofizial egokian inskribatuta, dena delako pertsona juridikoaren motaren arabera.
 - Ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak. Beste baten izenean jarduten edo proposamenak sinatzen dituztenek horretarako boterea erakutsi beharko dute.
 - Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko zein profesionala edo enpresa-sailkapena egiaztatzen duen dokumentazioa.

Eskatzen diren baldintzak biltzen direla ezartzeko une erabakigarria proposamenak aurkezteko epea bukatzen den unea izango da.

- b) Behin betiko bermea:

Bermea emateko erak.- Bermea SPKLTBko 96. artikuluan aurreikusitako edozein modutan eman ahal izango da.

BOSek eskubidea izango du abalen sinaduraren legitimazioa eskatzeko.

Enpresaburuen aldi baterako elkarteei dagokienez, partaidetza duten enpresen sozietate-izenak eta IFZak zehaztu beharko dira. Halaber, partaidetza dutenen artean, enpresa batek edo gehiagok eratu ahalko dituzte bermeak, baldin eta eskatzen den zenbateko guztia batzen bada eta aldi baterako elkarteko kide guztiak solidarioki bermatzen badira.

- c) Zerga betebeharrak beteta dituela esaten duen ziurtagiri positiboa, foru ogasuneko bulegoek emana, edo, haren ordez, Zergen Administrazioarako Estatuko Agentziak emandakoa.

- d) Ziurtagiri positiboa Gizarte Segurantzarekiko betebeharren aldetik egunean egotea egiaztatzeko, edo,

bestela, dagokion mutualitateko alta.

- e) Esleipenduna enpresaburuen aldi baterako elkarte bada, elkarte horren formalizazioaren eskritura publikoa aurkeztu beharko du. Era berean, elkarteko kide bakoitzak foru-ogasunaren edo -ogasunen nahiz Gizarte Segurantzaren ziurtagiri positiboa aurkeztuko du, bai eta Ekonomia Jardueren gaineko Zergari dagozkion agiriak ere.

Kontratazio-organoak dokumentazioa jaso ondorengo bost egun baliodunen barruan esleitu beharko du kontratua. Kontratazio-organoak ebazpen arrazoitu baten bidez erabakiko du esleipena.

Esleipena lizitzaileei jakinaraziko zaie, eta esleipen hori formalizatu behar den epea adieraziko da.

20. FORMALIZAZIOA.

Kontratua formalizatzean burutuko da.

Kontratua kontratazio-organoak egoitza duen lekuan egin dela ulertuko da.

Kontratua lizitazioaren baldintzekin zehatz-mehatz bat datorren administrazio-agiri batean formalizatu beharko da, eta agiri hori titulu nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartu ahal izateko. Alabaina, kontratistak eskatu ahalko du kontratua eskritura publikoan jaso dadila; haren konturakoak izango dira horren gastuak.

Ezingo da inola ere sartu kontratua formalizatzeko agirian esleipenaren baldintzak aldatzen dituen klausularik.

Kontratuari kontratazio-arloko errekurtsio berezia aurkeztu ahal zaionez, ezingo da halakoa formalizatu lizitzaileei esleipenaren jakinarazpena helarazten zaienetik hamabost egun baliodun igaro baino lehen.

Behin epe hori kontratua formalizatzea eteteko moduko errekurtsorik aurkeztu gabe igaro eta gero, edo, bestela, errekurtsioa ebazteko eskumena duen organoak etendura kentzen duenean, esleipendunak bost egunetik beherako epean formalizatu beharko du kontratua, formalizatzeko eskakizuna jaso duen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Kontratistari leporatu dakizkiokeen arrazoiak direla-eta kontratua formalizatzen ez bada, BOSek erabaki ahal



izango du kontratua suntsitzea, kalte-ordainen ordainketa eskatuz, betiere, interesdunari entzun ondoren.

Ezingo da kontratua betetzen hasi aldez aurretik formalizatu gabe, espedientearen izapidetzea presazkoa edo larrialdikoa denean izan ezik.

21. KONTRATUA ALDATZEA.

Behin kontratua hobetu eta gero, kontratazio organoak interes publikoko arrazoiak daudelako edo ustekabeak gainditzeko aldatu ahal izango du kontratua. Horretarako, horren beharrezan behar den moduan justifikatu beharko du txostenean.

Kontratuarekin bete behar diren beharrezan egoki betetzeko, lurralde esparrua edo ekintza eremua zabaltzea eragingo duten helburu berriei erantzuteko aldatu ahal izango da kontratua.

Aldaketa horiek ezingo diete eragin kontratuaren oinarritzko baldintzei. SPKLTBren 305. artikulua dioenari men egingo zaio bereziki.

22. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA.

Plegu honen oinarriaren gainean egiten den kontratuak izaera pribatua izango du.

Prestaketa eta esleipenari dagokienez, kontratua plegu honetan idatzitako klausulen arabera gidatuko da, edo, bestela, hauen bidez:

- BOSen kontrataziorako barne-jarraibideak.
- SPKLTBn horretarako ezarritako arauak.
- Hala badagokio, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuan (hemendik aurrera, 817/2009 ED) ezarritako arauen arabera gidatuko da, botere esleitzaila duten eta administrazio publikoa ez diren sektore publikoko erakundeek adostutako eta araudi harmonizaturik ez duten kontratuen kasuan.

- Betiere, SPKLTBn aurreikusitakoarekin bat datorrenean, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen arautegi orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuari jarraiki.

Bere eraginei eta suntsipenari dagokienez, kontratua plegu honetan idatzitako klausulen eta bertako eskubide pribatuko arauen arabera gidatuko da.

Horrez gain, SPKLTB, 817/2009 ED eta 1098/2001 Errege Dekretua aplikagarriak izango dira, baldintza-orri honek aipatutako araudi testuei erreferentzia egiten dien guztian.

23. KONTRATAZIO-ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA.

Kontratuarekiko administrazio-errekurtsu berezia jarri ahal izango da, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri aurretik.

Administrazio-errekurtsu berezia aukerakoa izango da, eta hura aurkezteko epea 15 egun balioudunekoa izango da, SPKLTBko 44. artikuluan ezarritakoaren arabera zenbatuta.

Errekurtsu-idazkia kontratazio-organoaren erregistroan aurkeztu beharko da nahitaez, edo errekurtsua ebazteko eskumena duen organoaren erregistroan (Kontratu Errekurtsoen Administrazio Organoa, Donostia kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz).

Nolanahi ere, errekurtsua jartzeko asmoa duenak aurrez jakinarazi beharko du, hura aurkezteko epe beraren barruan, kontratazio organoaren erregistroan idazki bat aurkeztuz (Euskalduna Jauregia, Abandoibarra Etorbidea 4, 48007 Bilbao), errekurtsua prozedurako zein egintzaren inguruan aurkeztuko den adierazita.

Errekurtsu-idazkian hauek jasoko dira: errekurtsua jasoko duen egintza, errekurtsuaren oinarritzat ematen den arrazoiak, errekurtsu-egileak erabili nahi dituen frogabideak, eta, hala dagokionean, hartzeko eskatzen diren SPKLTBko 43. artikuluan jasotako moduko neurriak.

Idazkiarekin batera, honakoak aurkeztu beharko dira:

- a) Prozedurara agertutako alderdiaren ordezkaritza egiaztatzen duen agiria, salbu eta organo beraren aurrean ebatzteke dagoen beste errekurtsu baten jardueri lotuta badago; azken kasu horretan, ziurtagiria eska daiteke prozedurara gehitzeko.
- b) Errekurtsu-egilearen legitimazioa frogatzen duen agiria (edo agiriak), legitimazioa herentziaz edo beste edozein tituluren bidez jaso duenean.
- c) Errekurtsua jartzen zaion berariazko egintzaren kopia edo helarazpena, edo egintza jaso duen espedientearen aipamena, edo argitaratu den aldizkari ofizialarena edo kontratatzailearen profilarena.
- d) Errekurtsu-egilearen eskubidea oinarritzen duen agiria (edo agiriak).
- e) Errekurtsua jarriko zela aurrez jakinarazi izanaren ziurtagiria.

24. JURISDIKZIO ESKUDUNA.

Kontratuaren sakonean sortzen diren lege-auziak jurisdikzio arruntak ebatziko ditu, eta prestakuntzan zein esleipen bidean sortzen direnak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioak. Kasu bietan ere Bilboko epaitegiek eta auzitegiek hartuko dituzte ebazpenak. Hala ere, alderdiek beraien auziak arbitrajearen pean jartzea adostu dezakete, indarrean dagoen legerian ezarritakoarekin bat etorritz.

Bilbao, 2017ko urtarrilaren 2a

1. ERANSKINA ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK.

1. SORMENA:

1.1 Zerbitzuaren barruan honakoak sartzen dira:

- a) BOSen kontzertu/jardueren iragarki originalak sortzea, testutik hasi eta amaierako artera heldu arte:
 - Jarduera horiei loturiko prentsako eta aldizkarietako iragarkien diseinua eta ekoizpena.
 - Interneteko atarietako eta prentsa elektronikoko publizitate ez intrusiboen (banner eta antzekoak) diseinua eta ekoizpena.
 - Kanpoko publizitatearen diseinua eta ekoizpena.
 - Irratiko iragarkien sorkuntza, gauzatzea eta grabazioa.
 - Telebistako iragarkien sorkuntza.
 - Eta abar.
- b) 2. atalean aipatzen den publizitate-material guztia sortzea.
- c) Hainbat formatu egokitzea.
- d) Testuak berriro ukitzea.
- e) Euskarazko itzulpena. (Eskatzen zaionean soilik).
- f) Ohiko zerbitzu osagarriak, espezialitate beraren barruan.
- g) Izaera, fede onaren, erabileraren eta legearen arabera gainerako prestazioak ere barne hartzen ditu.

Kontratuaren xedeen artean ez daude telebista eta irratiko iragarkien produkzio-gastuak, horiek aparteko aurrekontua izango baitute.

1.2. Argazki eta irudien erabilera: irudiak erabiltzen direnean, BOSenak edo kontzertuetan parte hartzen duten artistek lagatakoak izan beharko dira, edo, bestela, irudi-banku bat erabili beharko da. Hala dagokionean, BOSek egingo du argazki eta irudiak erabiltzeagatiko eskubideen ordainketa (dagokion



aurrekontua onartu ostean).

1.3. Irizpide orokorrak: iragarkiek diseinu moderno, sortzaile eta originala izan beharko dute. Diseinu erakargarri, garbi eta irakurterraza izango dute, eta irakurlearengan eragin bisual indartsu eta positiboa sorrarazi beharko dute.

1.4. Diseinua eta konposizioa: proposamena osatzen duten elementu guztiek argi errespetatu eta nabarmendu beharko dute BOSen irudi korporatiboa.

1.5. Zirriborroak/Bertsioak: Esleipendunak garatu beharreko jarduerarako behar beste zirriborro/bertsio egin beharko ditu, BOSek behin betiko onartu arte, baita BOSeko publizitate-jarduerak garatzeko beharrezkoak diren elementu guztien azken arteak egin ere.

1.6. Zerbitzuaren zuzendaritza eta ikuskaritza: BOSek zehaztutako saila arduratuko da kontratatutako zerbitzuaren zuzendaritzaz eta ikuskaritzaz. Sail horrek argibideak eman ahal izango dizkio esleipendunari, baldin eta horrek ez badu aldaketarik sorrarazten baimendutako zerbitzuan eta argibide horiek ez badoaz plegu honetan eta gainerako kontratu-agirietan zehaztutakoaren edo indarrean dauden legezko xedapenen aurka.

2. PUBLIZITATE-MATERIALA EGITEA:

2.1 Edukia:

Honako publizitate-materiala egin behar da:

Zk.	Kontzeptua	Unitateak	Zehaztapenak (kasu bakoitzean zehaztekoak)
1	Denboraldiko aurrerapen aldizkaria (elebiduna euskara-gaztelania), BOSen programazioarekin.	9.000 denboraldik o	A4 bitarteko diseinu eta tamaina. Gutxienez 12 orrialde, azalak barne. 200 gramoko distiradun couche paperean inprimatua, 4 + 4 tintarekin. Bizkarrean bi grapekin josita.
2	Denboraldiko egitaraua (elebiduna), BOSen programazioarekin.	3.000 denboraldik o	A4 bitarteko diseinu eta tamaina. Gutxienez 68 orrialde, gehi azalak atzealdeko azal-hegalarekin, 4 + 4 tintarekin + azaleko bernizarekin inprimatuta, distiradun couche paperean (250 gramokoa azaletarako eta 150 gramokoa barrualderako). Paper-azaleko koadernaketa hariz josita.
3	Denboraldiko laburpen kuadriptikoa (elebiduna), BOSen programazioarekin.	10.000 denboraldik o	A3 bitarteko diseinu eta tamaina. Gutxienez orrialde 1, kuadriptikoa, eta 150 gramoko distiradun couche paperean inprimatuta, 4 + 4 tintarekin.
4	Denboraldi sinfonikoko eskuko egitarauak. Elebidunak izango dira, eta kontzertu zehatz bakoitzaren egitaraua izango dute. (17 kontzertu x 3.000 egitarau) 12-16 orrialde bitarteko 45.000 egitarau eta 20-24 orrialde bitarteko 6.000 egitarau aurreikusten ditugu.	51.000 denboraldik o	A4 bitarteko diseinu eta tamaina. 4 + 4 tintarekin + azaleko bernizarekin 170 g-ko paper iztukatu matean inprimatutako azala. 4 + 4 tintarekin 115 g-ko paper iztukatu matean inprimatutako eta 2 graparekin jositako barrualdea + azaleko data berrinprimatuta. Maketazioa barne.
5	Ganbera denboraldiko eskuko egitarauak. Elebidunak izango dira, eta kontzertu zehatz bakoitzaren egitaraua izango dute.	3.950 denboraldik	A4 bitarteko diseinu eta tamaina. Gutxienez orrialde 1. 4 + 0 tintarekin + azaleko bernizarekin 170 g-ko paper iztukatu matean inprimatutako azala. 2



Bilbao Orkestra
Sinfonikoa

	(7 kontzertu x 350 egitarau + 3 kontzertu x 500 egitarau)	o	tintarekin 170 g-ko paper iztukatu matean inprimatutako barrualdea.
6	Zenbait diptiko denboraldian. Elebidunak izango dira, eta dagokien informazioa izango dute.	6.000 denboraldik o	A4 bitarteko diseinu eta tamaina. 4+4 tintarekin 150 g-ko paper iztukatu matean inprimatuta.
7	BOSeko egitarauko kontzertuen kartelak (elebidunak). (75 kartel x 20 kontzertu)	1.500 denboraldik o	Kartelek 60 x 90 zentimetroko neurria izan beharko dute, couche paper matean (150 gramokoa) eta 4 + 4 tintarekin inprimatuta.
8	BOSek programatutako kontzertuetan, kanpoaldean jarriko diren olana mikrozulatuak (elebidunak).	2 urteko	320 x 275 zentimetroko neurria izan beharko dute, perimetro osoan oinkatutako olana mikrozulatuetan; zuloa izango dute 40 zentimetro bakoitzeko, eta alde bakarretik egongo dira inprimatuta. Prezioaren barruan sartzen da olana bakoitza instalatu eta erretiratzea.
9	Kontzerturako enkarte edo "flyerrak" (elebidunak).	9.000 denboraldik o	DIN A5 bitarteko diseinu eta tamaina. 4+4 tintarekin 200 g-ko paper iztukatu matean inprimatuta.